

## **ALTZA IRRATI TAILERRA**

### **Una radio local en alza**

---

**Larraitz GARMENDIA**

#### **PRESENTACION**

A la hora de hacer y contar las vicisitudes del Taller de Radio Alza (TRA) tenemos que remontarnos al año 91. Precisamente en aquel entonces a más de un alzatarra, se le ocurrió proponer al técnico de la casa de cultura Casares, la idea de hacer algo relacionado con la radio. Una idea, que fue profundizándose a medida que los demandantes insistían más y más con el tema.

Una mañana en el mes de septiembre sonó el teléfono de una radio local de un pueblo cercano pidiendo una solución a la idea que se estaba cociendo en Casares. De ahí se conseguía como respuesta, la posibilidad de organizar un cursillo de radio en la misma casa de cultura. Un curso al que accedían 14 personas que todavía hoy por hoy tienen un contacto directo con este proyecto.

Una historia que no tiene demasiado misterio pero que supuso un antes y un después tanto en la dinámica funcional de la casa de cultura, donde está ubicado, como en los programadores de actividades del barrio, que ahora ven reflejado en un punto concreto del dial las actividades que vienen organizando en el barrio y desde el barrio. Un punto importante éste si tenemos en cuenta tanto la ubicación geográfica del barrio como la situación e importancia que tiene Alza en los medios de comunicación, en cuanto a espacio se refiere, y teniendo siempre presente que es el segundo barrio, en cuanto a número de habitantes, de la ciudad de San Sebastián.

## IRRATI BATEN HISTORIA

Altza Irrati Tailerraren historia aztertzeak beharbada ez dauka oso datu interesgarririk baina badauka berez, beste edozein medioetatik bereizten duen ezaugarria, hain zuzen Altza bezalako auzo batetan kokaturiko medioa izatearena.

Medio txikia baina pretensio eta gogo haundiz sortutakoa. Beti auzoa eta inguruko ekintzak abiapuntu izango dira dialeko FM 107.4 honetan.

Garaian garaiko egitarauak izango dute protagonismo nagusia bertan eta irrati altzatarren eguneko ihardueratan gauza arrunta izan dadila lortu dute bertako partaideek.

Noski honetaz gain islada puntua ere izan nahi dugu, hau da protagonistak irrati esatari bihurtu daitezke gurekin kontaktuan jarri ezker. Horretarako geroz eta garrantzi gehiago eman nahi diegu gure auzo eta inguruko biztanleei. Eta ez da gauza erraza kontutan hartzen baditugu irrati batetan topa daitezkeen arlo guztiak: teknika, irrati emandegiak, esatariak eta gonbidatuak, ikasleak etab.

Are gutxiago gurea medio txikia izanik, eta txikia esaten dugunean zerotik hasi garela esaten dugu, poliki-poliki eta banaka-banaka entzuleak lortzen goaz eta beste medioen errespetua eta onspena eskuratzen hasi gara. Baina horretarako bost urtez egunero lanean aritu gara eta gure erronkak gainditu ditugu, nahiz eta oraindik erronka haundiagoak izan. Halaber, teknika hobekuntza garrantzitsua behar dugu eta leku haunditze bat ere ez datorkigu batere gaizki. Abiapuntua kultur etxea da eta hasieratik bertan kokatu ez bagara ere hiru urtetik ona han izan gara eta sinisten ez baduzue etorri gu ikustera.




**Altza irrati Tailerrak eskuratu ditu aurrerapen teknologikoak eta horrek lana erraztu digu.**

## ESQUEMAS DE TRABAJO

No ha sido fácil plantear los esquemas de trabajo en el taller, máxime sabiendo que una radio no tiene descanso.

A todo esto tenemos que añadir la necesidad de personal en un medio como éste, es decir en una radio con escasos recursos económicos que no se plantea como un lugar donde trabajen directamente profesionales del medio sino que se presenta como taller con aspiraciones reales en el dial.



Todo esto se consigue solucionar en un principio con la voluntariedad de los participantes, pero a medida que el taller se consolida y la demanda de participantes aumenta este esquema se queda pequeño y hay que solucionar otra vez el problema.

Siempre teniendo claro el esquema de taller, se trabajan tanto las emisiones como los cursillos gracias a los cuales los interesados en conocer el medio, pueden aprender tanto a nivel teórico como práctico.

Y hablando de los cursillos, son precisamente la base del TRA, el fundamento tanto de su existencia como de su organización, por lo que la participación en los mismos, no exige ningún conocimiento previo del medio. Eso es algo que se nota a la hora de hacer balance de sus participantes, jóvenes de 11 años o jubilados de 70, pasando por profesionales del mundo de la contabilidad o estudiantes de ingeniería.

## IKASTARO EGILEAK ETA AUZOA

Altza duela urte batzutatik ona Donostiako auzo baztertu edo marginatu horietakoa izan da edo behintzat honela ikusi dute donostiar gehienek.

Eta hori ez da errealitatearen islada, baizik eta drogarekin zerikusia izan duten arloan finkatu dira altzarekiko erreferentzia gehienak. Honen inguruan Donostiako Udaleko zenbait sailek lan ugari egin dute aurreritzi hori aldatzeko, eta horien artean kultura patronatua kokatu behar dugu. Altzak badu pozoinaz gain beste arlo positiboetan lan egiten duten elkarteak eta horien artean beharbada irratia kokatu beharko genuke.

Bertan era guztietako pertsonak parte har dezakete, hau da 18 urte gorakoentzako ikastaro mixto eta elebidunak antolatu ditugu 1991. urtezkeroztik baina honetaz gain aldiro ikastaroak izan ditugu arrakastatsuenak, halaber 92. urtean Altzako bost ikastetxeei eskeinitako ikastaroak non 7. eta 8. mailako gazteek parte hartu zuten edo eta emandegi mailan Askagintza edo Kale Hezitzaileekin eginiko sexu ikastaroak irratiz. Oso esperientzia politikak, orotara irratia hezkuntzabide alternatiboa izan daitekeela ikusi dugulako. Hortaz bide honetatik zuzendu nahi dugu gure geroa eta besteak beste gazte-lekuko partaideekin kontaktuan jarri gara dagoeneko.

Dena den, oraindik ere urrunago heldu nahi dugu eta gustatuko litzaguke altzatar guztiei irratiekiko erlazio hestua eskeintzeko aukera ematea.

Gure helburu berri hau lortu ahal izateko Altzako elkarte guztiek Altza Irrati Tailerra ezagutuko lukete, beraz bien arteko erlazioa feed-back.ean oinarrituta egongo litzateke, hau da altzatarrek irratia informazio erreferentzi puntutzat izango lukete eta irratia altzatarrekin harreman egokiak lortuko lituzke.

## TREN DE EMISIONES



Algunos de los participantes en el Taller de Radio.

Si es verdad que el TRA comenzaba sus emisiones en el año 92, no menos cierto es que desde un principio no conseguimos el beneplácito suficiente para poder hacerlo desde la casa de cultura.

Fue precisamente en febrero del 94 cuando dimos el gran salto y ubicábamos nuestros estudios en el segundo piso del caserío Casares. Atrás quedaban nuestros días en la radio escolar ubicada en San José de Calasanz o la programación enlatada que tanto trabajo nos dió. La seriedad y la organización profesional de los voluntarios del taller posibilitaron la puesta en práctica de un proyecto ideado en papel y sin un norte demasiado definido.

Luego vinieron los reconocimientos y el saber hacer con programas como "Sobre el Mantel" Mención Honorífica en los Premios SUSTATU'94 especialidad Radio o Primer Premio en la misma especialidad en el año 95. Destacar además de ello los experimentos llevados a cabo por parte de nuestros alumnos como es el caso del programa "escrito en el aire" con el que pusimos en entredicho el hecho de los "mensajes subliminales" y vivimos en nuestras carnes "la manipulación del mensaje radiofónico". Son pequeños ejemplos de lo que el tiempo ha permitido hacer en un lugar como éste, un taller de radio que como su propio nombre indica permite desde el respeto poner en práctica todas estas expectativas de sus participantes.



Sustatu saria eta irabazleak.

## IRRATI ASTEA ERREFERENTZI PUNTUA

Hiru urte bete ditu dagoeneko Altza Irrati Tailerrak, irrati munduak dituen tirabiren erreferentzi puntua izan nahi duela, bai profesionalentzat zein bestelako biztanleentzat argi geratu da. Baina erreferentzia hori lortu ahal izateko irrati astea antolatu genuen, bertara irrati esatari eta profesionalak etorri eta gure irrati estudioak ezagutzeaz gain, esperientzia pertsonalak kontu ditzazkete abiapuntu zehatz batetik hasita. Hala nola, irrati libreetan Altza Irrati Tailerrak badu bere lekutsoa edo eta irrati komertzialetan ere kontutan hartzen gaituzte. Beti ere otsaileko aste honetan Altza Irrati Tailerrak komunikabide gehienetan izaten du bere tarte garrantzitsua bai antolatu den egitaraua geroz eta interesgarriagoa delako eta baita ere Altza Irrati Tailerra beste medioen begietara ondo dagoen proiektua delako, hau da kompetentzia tirabira hasieratik aldendu eta hartu-eman politak sortu daitezkeelako etorkizunean. Adibidez gisa esan daiteke 1996. urteko irratiaren astean honelako islada izan genuela medioetan: Euskaldunon Egunkaria, Deia, Egin, Diario Vasco, Argia astekaria, Irutxulo astekaria, Euskal Telebista, Teledonosti, Onda Cero, Radio Diario, Ser Irrati Katea, Radio Euskadi, Euskadi gaztea, Egin Irratia, Gure Irratia, Herri Irratia eta Euskadi Irratia, Radio France.

Honetaz gain Altza Irrati Tailerrak antolatutako asteak erantzun positiboa izan zuen biztanleengan, batez ere gaztetxoengan, 700 bat ikasleen parte hartzearekin.

Azken finean edozein gai hartuta ere, erreferentzi puntu bihurtzea ez da txantxetako gauza baina aurkezten den produktua egokia bada eta modu serioan lantzen bada arlo guztietatik behar duen islada izango du denborarekin.



**Duela urte batzuk irrati entzule izatea ez zen gauza erraza, gaur egun aldiz gauzak asko erraztu zaizkigu irrati zale guztioi.**